


ortzadar

larunbata, 2017ko ekainaren 10a. 502. zenbakia

deia.com/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak



TXELU ANGOITIA

Tanger hirian izandako
bizipenak jasotzen
dituen argazki-liburua
kaleratu du argazkilari
durangarrak

-- 4-5. orrialdeak --



Sentitu magia azkenekoz

Napoka Iria bikoteak agur esango dio hamabi urteko ibilbideari, eta azken kontzertua eskainiko du uztailaren 7an Eibarren, musikari eta lagunez inguraturik

 OLATZ PRAT

GAUZAK hasi eta amaitu egiten dira, halabeharrez batzuetan, borondatez besteetan, eta bien nahasketaren ondorioz sarritan. Agur esateko ordua iritsi zaio Napoka Iriari ere, duela 12 urte hasitako ibilbidea aste batzuk barru amaituko dela iragarri baitute Miren Narbaizak eta Ander Mujikak. Duela bi urte atsedendia egitea erabaki zuten, “arnasa hartzeko, proiektuari ere arnasa hartzen uzteko eta erabakia beranduago hartzeko asmoz”, Mujikak dioenez. Bi urte pasa direlarik, konturatu dira ez dela Napokarekin aurrera egiteko momentua.

“Napokan, gauza guztiak bezala, hau izan da taldearen prozesu naturala –azaldu du Narbaizak–. Suposatzen dut sentimendu bat izan dela, momentu honetan biok topatu duguna eta modu batean eskatu diguna amaiera bat ematea”. Edozein bikote harremanetan gertatu daitekeen bezala, magia itzaltzen joaten da batzuetan; bide desberdinak hartzeko ordua dela dio bihotzak, natural hartu eta begia etorkizunean jartzeko tenorea dela dio buruak. Hertzainak-en *Aitormena* kantua dator gogora: “Zin

dagizut ezin izango zaitudala ahaztu inoiz... baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitezan”.

“Modu oso kontzientean eta erabat hunkiturik” hartutako erabakia izan bada ere, hartzera begira jarri orduko irribarrea marrazten zaie aurpegian. “Egin dugun guztiaz konturatzeko garaia da orain, zenbat gauza eder egin, ikusi eta ezagutu ditugun, zenbat momentu eder pasa”. Bizi izan dituzten gauza onak “zenbatezinak” direla dio Mujikak, baina oso gogoan gordeko ditu, batez ere, kontzertuetan bizitako uneak. Baita Narbaizak ere: “Kontzertuetan sortu izan den isiltasuna daukat askotan gogoan, horrek zoratu egin izan nau”. Dударik gabe oroitzapenen kutxan gordeko dituzte sortzen pasatako uneak, ezagututako lekuak, atzerrira egindako bidaiak eta, nola ez, ezagututako jendea, batzuk, ziurrenik, bizitza osorako lagun izango direnak.

SORMEN LANTEGIA Musikari bezala “elkarrekin hazi” direla diote: Iritsi gara puntu batera non hitz egin gabe bagenekin kantuek zer egingo zuten; bion artean sortzea oso ederra izan da, oso ondo funtzionatu izan dugu beti”, dio abeslariak. Napoka Iria sormen labora-

tegia izan da beraiantzat, “askatasun osoarekin erabili izan dugun laborategi esperimental oso dibertigarria”, Mujikak definitzen duen moduan. “Hasi ginen inongo prentzio eta helburu jakinik gabe, eta batez ere aurrez zehaztutako inongo sormen-biderik gabe. Elkartu eta bururatzen zitzaiguna jotzen genuen eta bion artean joan gara frogatzen eta oso modu askean jolasten. Hortik atera dira egin ditugun gauzak: talde desberdinekin kolaboratzea, instrumentuen erabilera desberdinak, bertsoak... Gogoak eskatzen ziguna probatzeko espazioa izan da”. Zuzenekoetan azala uzten duten talde horietakoa izan da, gainera, Napoka Iria. Mujikak berak, diskoetan baino, zuzenekoetan ikusten du islatuta taldea izan dena, besteak beste diskoetan ez direlako islatuta gelditu zuzenekoetan egin dituzten hainbat eta hainbat gauza.

Uztailaren 7a egutegian markatua izango dute jada askok eta askok, eta ez San Femen jaiengatik. Egun horretan azken kontzertua emango du Napoka Iriak, Eibarko Coliseoan. Beren ibilbideari errepassoa egingo diote eta urte hauetan guztietan alboan izan dituzten musikari eta



 Ander Mujika eta Miren Narbaiza. JOSU TORREALDAY

Noiznahi entzuteko ondarea

Napoka Iria 2005ean jaio zen, Mujikaren gitarra eta Narbaizaren ahotsa elkar-tu zirenean. 2006an kaleratu zuten sei abestiko maketa. Laster ikusi zen tandem honek zeresana emango zuela; nola zen posible intimitate, intentsitate, xehetasun eta emozio hori dena hain gutxirekin egitea? Gero etorri ziren ‘Poors- traat 58’ EP-a (2008) eta lehen lan luzea, ‘Lehertarazi edifikioak’ (Bonberenea ekintzak, 2011), zuzeneko grabatua. ‘Arnasten ikasteko berri’ (Bonberenea Ekintzak, 2013) izan da taldearen bigarren eta azken lan luzea.

lagun ugariren konpainian egingo dute gainera, oholtza eta doinuak konpartituz. Azken aldiz kantuek jo eta disfrutatzeke aukera izango da beraiantzat: “Guk jaso izan dugun goxotasun hori jendeak bueltan jaso dezan nahiko genuke, kontzertuetako magia hori azken aldi batez bizitzea”.

PROIEKTU BERRIAK Napoka Iriari agur esanda ate batzuk itxi eta beste batzuk irekiko direla adierazi dute Narbaizak eta Mujikak. Biek

ere argi dute musikaren ibilbideak markatuko duela, momentuz, euren bizitza. Narbaizak MICE izenpean ekingo dio aurki bakarkako ibilbideari, eta abuztuan grabatuko du lehen diskoa. Gainera, azken aldi- an bezala, Perlak, Joseba B. Lenoir eta Drumkopters taldeekin jotzen jarraituko du. Mujika Anarirekin dabil azken hilabeteetan eta une honetan Jabier Muguruzaren disko berria prestatzen ere badihardu. Bistan da ilusioz eta proiektuz beterik direla biak ala biak.



iberdrolar, emakumea sustatzen dugu kirolaren bitartez, orain arte leorik egin ez duen moduan.

Futbola	Gimnastika
Badmintona	Roleibola
Errugbia	Eskubaloi
Triatloia	Piraguismoa
Igniketa	Hockeya

IberdrolaVerde.Es



Emakumea kirolan sustatzeko babesle ofiziala

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

Begirada

Mendi Urruzuno Orereta, 1971

Ikus: www.mendiurruzuno.com | www.flickr.com/photos/mendiurruzuno



Datorren astean...

Ibai Arrieta

h! Herri hizkeran jantzia? Sartu eta egin aproba **herrizki aplikazioa**

Garapena: **artez** AKTING... AKTING... AKTING...

Babesleak: AKTING... AKTING...

url:  android:  iOS: 